

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 3611

*101/2022 EBAZPENA, ekainaren 23koa, Santa Marina Ospitaleko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Santa Marina Ospitalean Administrazioko Taldeburua lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia egiten den.*

Santa Marina Ospitaleko Administrazioko Taldeburua lanpostua hutsik dago. Hori dela eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, honako oinarri hauen arabera

#### OINARRIAK

##### 1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetako langile finkoa izatea (estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratuduna) eta lanpostua jabetzan edukitzea D2/C2 lanbide-taldean.

b) D2/C2 lanbide-taldeari dagokion titulazioa edukitzea.

c) Gutxienez, 2 urteko lan esperientzia izatea D2/C2 lanbide-taldean.

d) Hizkuntza-eskakizuna. 2. hizkuntza-eskakizuna, eta derrigortasun-data: 2018-06-20.

e) Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren eta Osakidetzako Euskara Planaren gainerako betebeharrak betetzea.

##### 2.– Aintzat hartuko diren merezimenduak.

– Esperientzia eta/edo ezagutzak izatea SAPen (Fakturazio-, Logistika-, Finantza-moduluak...).

– Esperientzia eta/edo ezagutzak izatea Osabiden (Fakturazio-moduluak).

– Esperientzia eta/edo ezagutzak izatea zordunen fakturazio-kudeaketan (espedienteen kudeaketa, hirugarrenen fakturazioa, programa-kontratuaren fakturazioa).

– Esperientzia eta/edo ezagutzak izatea bidaiari-gastuak likidatzeko kudeaketan.

– Esperientzia eta/edo ezagutzak izatea Diruzaintzaren kudeaketan (plangintza, kobratu beharreko kontuen kontziliazioa, ordaindu beharreko zenbatekoak, zorraren erreklamazioa).

– Esperientzia eta/edo ezagutzak izatea kontabilitate analitikoan, kontabilitate orokorrean eta aurrekontuak egiten.

- Esperientzia eta/edo ezagutzak izatea kontabilitate-kudeaketako txostenak egiten.
- Ofimatikako ezagutzak izatea: Word, Excel, Acces, Power Point, Outlook.
- Prestakuntza eta/edo esperientzia izatea taldeak planifikatzen, antolatzen eta/edo kudeatzen.
- Lantaldeetan parte hartu izana.

Lanpostu hau betetzeko interesgarria izan daitekeen eta balioa erants dezakeen edozein merezimendu aurkeztu ahalko da.

### 3.– Euskararen ezagutza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.

### 4.– Eskaerak egiteko epea eta aurkezteko modua.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Santa Marina Ospitaleko Langileen Zuzendaritzara bidali beharko dituzte eskabideak (Santa Marina errepidea 41, 48004 Bilbo). Horretarako, 15 egun balioduneko epea izango dute, ebazpen hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aurkeztu ahal izango dira, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako eran.

Interesdunek Santa Marina Ospitaleko Langileen Zuzendaritzara bidali behar dute eskabidea, (Santa Marina errepidea 41, 48004 Bilbao), beren datu pertsonal guztiak eta curriculum vitae dokumentatuarekin batera.

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala bada, gorkio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- Baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.
- Baloratu beharreko merezimendu guztien fotokopia konpultsatua.

CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan ageri den moduan; hala ere, eskatzaileak horren berri eman behar du eskaeran.

### 5.– Balorazio Batzordea.

Batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak baloratzeko, eta izangaiei horren berri emango zaie.

Batzordeak, eskabideak baloratu ondoren, eginbide osagarriak gauzatzea erabaki dezake; eta izangaiei horren berri emango die.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, dagokion izendapena egiteko proposamena aurkeztuko da. Lanpostua hutsik uztea proposa dezake epaimahaiak, betiere aurrez txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiek betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak eta gauzatutako eginbide osagarriak (halakorik balego) zerrendatuko dira, eta lanpostua euretako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango.

#### 6.– Hautaketa prozedura.

Ezin izango dira baloratu, inolaz ere, deialdia EHAAAn argitaratzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ez eta eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

#### 7.– Prozedura amaitzeko ebazpena.

Honen bidez hasitako prozedurari amaiera emango zaio (lanpostua esleitzea edo betetzeke uztea), Osakidetza Santa Marina Ospitaleko zuzendari-gerentearen ebazpenaren bidez, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta baita Osakidetzaren intranetean zein web-orri korporatiboan ere argitaratuko da.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu EHAAAn argitaratzen den egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean.

#### 8.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2022ko ekainaren 23a.

Santa Marina Ospitaleko zuzendari-gerentea,  
ICIAR MARIA LARREA ARECHAVALETA.